

Lur-langille, aiskide,  
ur duzu gezurra,  
ta zabilkez arretaz  
izanikan zurra.

Neguko eguzkia  
bezain kaltekorra  
uni ta kalekoen  
solas labankorra.

Elkarraz ezin bizi  
gaua ta eguna,  
ezta ere gorroto  
eta maitasuna,

Iruzurra zirkinka  
umeen biotzean...  
Erensugeak jaio  
filien artean?

## **BEI BAT IL ZAIT**

*Tamalgarri zaigula ere, datorkigunari arpegia eman bear:  
gaur zortzi bei bat el zitzaidan, nere «Apal» esne emaillea.  
Galera utsa baserri baterako, olako bei gabe itzetik ortzera  
gelditu bearra.*

**Doiñu:** Enbeita-ren «Fzaro ugarte,,,».

Lazgarri aiz, erio! , lazgarri ta zakar!  
Bizitz-aria dakik xeakutzen azkar.  
Bei bat nuen *Apala*, langille, esnetsu,  
eta lengoan zidan erioek lapurtu.

Bi begi zeuzkan eder, ORO ikus-naita,  
apala nerizkion otzana zan eta;  
bizkar luze aragi guriz ornitua,  
errapea luzanga esnez zanpatua.

Ez, etzuen akatsik nere bei apalak,  
kortan naiz zelaian soin-kaizu zabalak;  
eta beste egunez — nolatan ez dakit  
erio maltzurak, arrapatua dit.

Tantai agitz ederra laster zun itzuli,  
begi aurrean zidan kolpeka irauli:  
sukar aunditan zion gorputza ipiñi,  
ezur-muiñetaraiño sartu-aziz otza,

Begi, mutur, ezpaiñak zitzaizkon gorritu,  
bizkar-gaiñ ta iztarretan aundituak soildu:  
gorotza gero egin zuen odultsua,  
ixuria zuen bai bazi sarritua.

Albaiterua deitu nuen ber-bertatik,  
sendagaia genion ar-azi gogotik;  
egiazko arduraz gintzakion lagun,  
baiña ORO alperrik, laster ii zitzaigun.

Ezin nuen siñetsi! Baiña egia zan:  
«Apala», nere beia, bizi gabe zetzan.  
Lazgarri aiz, erio!, lazgarri ta zakar!  
Bizitz-aria **dala** xeakutzen azkar.

Nere beiari zion erioek ezarri  
garmu-sukarrezko gaitz OSO bildurgarri,  
eta nere tantaia zortzi bat orduan  
zerraldo, eroria zeukan ukulluan.

Usteltzen jar zitzaigun itzetik ortzera,  
eta lasterxe genun eraman lurpera:  
gaitz kutsukorra baita, toki karetsuan  
gure Apala errerik ipiñi genduan.

Nola sar ote zion erioak gaitz ori?  
Mendian? Ukulluan? Ez dakit ziurki.  
Egun oro egin dut korta garbiketa,  
goi-erpiñean izan dute iñoiz larreta.

Gaur ezkeron nabillan ardura berotan,  
korta ta mendiak obeki gogotan.  
Aska, orma ta azpi ditut kareztuko,  
epai-urratudunak bereix nik jarriko.

Lazgarri aiz, erio! , lazgarri ta zakar!  
Bizitz-aria dakik xeakutzen aakar:  
gure bei ona datza lurrari emana.  
Oroia maiz etxean joaten igana!

